HAZI FUNDAZIOAREN ABADIÑOKO (BIZKAIA) EGOITZA GARBITZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO LIZITAZIOAN, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKOAN, INDARREAN EGONGO DEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

HAZI FUNDAZIOARI (aurrerantzean, HAZI) Abadiñoko bere zentroan garbiketa-zerbitzuak eskaintzea da kontratuaren helburua. Ingurumena eta laneko osasuna errespetatzen dituzten metodoak, praktikak eta produktuak erabiliko dira kontratua gauzatzean, eta hondakinak modu egokian kudeatuko dira, zentroetan lehendik dagoen gaikako bereizketa-sistema mantenduz.

2025/04/16an, Eusko Jaurlaritzaren www.contratacion.euskadi.eus kontratazio-plataforman 13_25 espedientearen lizitazioa argitaratu zen, Hazi eta Elika fundazioek Arkauteko nekazaritzako elikagaien campusean eta Hazi fundazioak Abadiñoko instalazioetan dituzten instalazioak garbitzeko zerbitzuak kontratatzeko (kontratu hori gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratzeko enpresei erreserbatuta dago). Lizitazio horren emaitzetatik ondorioztatzen da ez zela aurkeztu 2. loteari buruzko eskaintzarik: HAZIren garbiketa Abadiñoko zentroan; beraz, esleitu gabe utzi zen. Horregatik, HAZI Fundazioak lizitazio berri bat argitaratu zuen 2025/06/13 datarekin, kasu honetan GIZARTE EKIMENEKO ENPLEGU ZENTRO BEREZIENTZAT ETA LANERATZEKO ENPRESENTZAT **erreserbatuta ez dagoena.** 25/07/07an argitaratu zen Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman Abadiñoko (Bizkaia) zentroko instalazioak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazioa esleitu gabe uzten duen ebazpena. Horregatik, HAZIk beste lizitazio bat argitaratzen du.

Komentatutakoaren arabera kontratua ez da loteetan banatzen.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 130. artikuluan ezarritako betebeharra betez (aipatutako legeak Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen ditu 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak), subrogazio posiblearen eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzaileei, baldin eta arau legal baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorra duen negoziazio-akordio baten arabera esleipendunak enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra badu lan-harreman jakin batzuetan.

Administrazioko Klausula Partikularren Pleguaren VIII. eranskinean jasota dago informazio hori, eta gaur egun kontratuaren xede diren zerbitzuak ematen dituen kontratistak eman dio informazioa Kontratazio Organoari.

Kontratuaren CPV kodeak honako hauek dira:

90910000- 9 Garbiketa-zerbitzuak.

90911200- 8 Eraikinen garbiketa-zerbitzua.
90919200-4 Bulegoen garbiketa-zerbitzua.

2.- BALDINTZA OROKORRAK

Garbiketa-zerbitzuek barne hartuko dituzte honakoak:

2.1.- Mantentze estandarreko espazioen garbiketa.
2.2.- Edukiontzi higienikoen kudeaketa.
2.3.- Material kontsumigarriaren kudeaketa

2.1.-Espazio estandarren garbiketak:

Normalean egiten direnak dira, instalazioen erabilera kontuan hartu gabe.

Enpresa kontratistak PTP honen I. eranskinean adierazitako espazioak garbitu beharko ditu, gutxienez PTP honen II. eranskinean jasotako maiztasunarekin.

Zerbitzuak barne hartuko du zerbitzua amaitzean lokaletako argiak kontrolatzea eta itzaltzea, lokal guztien ateak itxita uztea eta elementu guztien egoera errepasatzea. Hala, gerta litekeen kalte edo matxura ororen berri eman behar da, eta berariaz adierazi behar da gaizki funtzionatzen duen susmoa pizten duen zirkunstantzia oro.

Zerbitzuak barne hartzen du hondakin guztiak gaika biltzea, erretiratzea (birziklapen-puntuetara/edukiontzietara) eta eramatea. Enpresa esleipenduna arduratuko da instalazioetako jardueragatik edo bere jarduera propioagatik sortutako hondakinak eta zaborra biltzeaz, gordetzeaz eta erretiratzeaz, zerbitzuaren berezko ezaugarriek eskatzen duten aldiro.

2.2.- Edukiontzi higienikoen kudeaketa

Instalazioetan emakumeentzat dauden komun guztietan, edukiontzi higieniko-sanitario guztiak jarri eta kudeatu beharko ditu hilero; horrez gain, horiek garbitu eta desinfektatu beharko ditu, eta tratamendu egokia eman beharko die sortutako hondakinei.

Gutxienez hilean behin aldatu behar dira edukiontzi higienikoak, eta beharrezkoa den guztietan.

2.3.- Material kontsumigarriaren kudeaketa:

Esleipendunak komunetako eta jantokiko (Abadiñoko kasuan) material kontsumigarri guztia jarriko du (xaboiak, komuneko zelula-papera eta lehortzeko papera), HAZIn eta ELIKAn dauden banagailuetarako egokia.

3.- GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzu mota horiek emateko behar den prestakuntza egokia duten langileek eman beharko dituzte zerbitzuak.

Langileak ordezkatuz gero, HAZIk ez du inolako erantzukizunik izango enpresa kontratistaren eta langile horien arteko harremanean.

Zerbitzuak emateko orduan, langileek laneko arropa eta NBEak izango dituzte; enpresa kontratistak eman beharko dizkiete horiek.

Esleipendunak zerbitzuaren arduradun bat izango du eta honako zerbitzu hauetarako harremanetarako telefonoa izango du.

- HAZIko Administrazio Saileko langileekiko solaskide zuzena izango da.
- Garbiketako langileak kudeatuko ditu.
- Materiala eskatuko du.
- Aldian behin jarraipen-bilerak egingo ditu HAZIko langileekin.
- Lan maila betetzearen arduraduna izango da.
- Zerbitzua betetzeko kanpoko laguntza-bitartekoak behar direnean, hala nola plataforma edo ekipo bereziak, beharrezko kudeaketak egingo ditu.

4.- LANTALDEAK, TRESNAK ETA MATERIALAK

Eraikinak eta bulegoak garbitzeko zerbitzuetan erabiliko diren materialak eta produktuak esleipendunaren konturakoak dira, baita erosketak eta stocka kudeatzea ere.

Halaber, lan guztiak egiteko makina egokiak izan behar ditu esleipendunak.

Erabiliko dituzten produktuak, makinak eta beste garbiketa-tresna batzuk adierazi beharko dituzte lizitatzaileek euren eskaintzetan.

Esleipendunaren konturakoak izango dira laguntza-materialak, hala nola eskailerak, aldamioak, segurtasun-uhalak eta segurtasunaren eta laneko higienearen arloko arauen arabera derrigorrezkoak diren gainerako bitartekoak.

Eraikina ezin hobeto garbitzeko beharrezkoak diren eragiketen artean, eraikineko bulego eta izakin guztiak modu berezian zaintzea eta kontserbatzea errazten duten produktuak erabiliko dira.

Garbitzeko erabiliko diren produktu guztiek HAZIren Administrazio Sailaren onarpena izan behar dute. Hala, osasun-ziurtagiriak eta fabrikatzailearen ziurtagiriak eska daitezke, eta horien kalitatea kontrasta daiteke laborategian.

Garbiketa-produktuen zehaztapenak:

Debekatuta dago honakoen erabilera:

- Aire-gozagarriak
- Pixatokietarako pastilla edo substantzia lurrindunak
- Esprai formatuko produktuak, propultsatzaileekin/aerosolekin
- Desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (adibidez, lixiba) garbiketa orokorrerako, komunetan eta sukaldeetan izan ezik.

Garbiketa-produktuen ontzi guztiek ongi etiketatuta egon behar dute.

Lizitatzaileak zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktuen zerrenda bat aurkeztu beharko du, eta bakoitzaren funtzioa edo aplikazio-gainazala eta segurtasun-fitxa adierazi beharko ditu.

Honakoak bermatu behar dira:

- Garbiketa produktuen aniztasun txikia.
- Edukiera handiko ontzietan dauden produktuak erabiltzea eta horiekin lanerako ontziak betetzea, edo produktu kontzentratuak erabiltzea.
- Garbiketa-produktuek ingurumena errespetatzea. Horretarako, I motako ekoetiketaren batean (Europako etiketa ekologikoa, Zisne Nordikoa edo antzekoak) zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte produktuek, produktuaren formulazioak dituen konposatu kimikoei dagokienez.
- Ontziek ez dute plastiko halogenaturik izan behar, adibidez, PVCa.

Komuneko paperaren eta eskuak lehortzeko paperaren zehaztapenak:

Produktuek % 100 birziklatuak izan behar dute, eta ez dute batere klororik izan behar (Totally Chlorine Free, TFC).

Produktuek I motako ekoetiketaren bat izan behar dute produktuaren formulazioan ageri diren konposatu kimikoei dagokienez, hala nola Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa, Europako Etiketa Ekologikoa edo baliokideren bat.

Lagin bat aurkeztu behar da, produktua ukitzeko atsegina dela eta erresistentzia-propietate tekniko egokiak dituela bermatzeko.

Eskuetarako xaboiaren zehaztapenak:

Eskaintzen den eskuetarako xaboiak ez du izan behar koloragarririk, lurrinik ez agente desinfektatzailerik.

Ontziek ez dute plastiko halogenaturik izan behar, adibidez, PVCa.

Zabor-poltsak:

Zabor-poltsek ez dute plastiko halogenaturik izan behar, hala nola PVCa.

Materia birziklatuaren eduki handia izatea baloratuko da (gutxienez % 80).

Garbitzeko tresna eta makinen zehaztapenak:

Mikrozuntzezko garbiketa-trapuak eta mopak/lanbasak erabiltzea baloratuko da, hondakinen sorrera, uraren kontsumoa eta beste produktu kimiko batzuen kontsumoa murrizteko.

Materiala gordetzea

Berariaz horretara bideratutako gela berezietan gordeko da garbiketarako material guztia, eta gainerako eremuak bezala garbitu beharko da gela hori ere.

Askotariko zereginetan erabilitako material eta makina guztiak behar bezala garbitu behar dira erabilera bakoitzaren ondoren.

5.- LANAK GARATZEKO JARRAIBIDEAK

Kontratu honen xede diren espazioak garbitzeko esleipendunaren langileek eta enpresa esleipendunak berak ez dute iradokizunik edo kexarik onartuko, HAZIren Administrazioko arduradunen bidez ez bada. Era berean, Administrazioko arduradun horiek izango dira esleipendunak edo haren langileek igorritako iradokizunak eta kexak jasotzeaz arduratuko diren bakarrak.

Igogailuen kabinak ez dira okupatuko garbiketako tresna edo materialekin. Era berean, libre utziko dira ateak, korridoreak eta ebakuazio-bideak.

Esleipendunak uniformez jantzi behar ditu HAZIren lokalak garbitzeaz arduratzen diren langile guztiak, eta langile bakoitzak ikusteko moduko leku batean izan beharko du helburu horretarako emango zaion identifikazio-txartela, hala eskatzen bada.

Esleipendunak HAZIren lokalen garbiketara bideratzen dituen langileen kasuan, derrigorrezkoa izango da haien lanaldia betetzea, sartzeko eta irteteko orduak errespetatzea eta ordutegiaren kontrola egitea. Ez dago baimenduta eraikinean aipatutako

langileak ez diren beste inor egoterik. Ordutegia kontrolatzeko tresna baten bidez kontrolatu behar da ordutegia.

Esleitutako zerbitzua gauzatzera bideratzen dituen langileei bitarteko egokiak eman beharko dizkie esleipendunak, Laneko Arriskuen Prebentzioarekin lotuta indarrean dagoen araudiak jasotzen dituen xedapenak betetzen direla bermatzeko.

5.1.- Moketak eta alfonbrak

Eskuiladun aparatuekin xurgatuko dira. Orbanak ahalik eta azkarren garbituko dira, apur bat harraskatuz, eta trapu zuri garbi batekin kendu beharko da hezetasuna.
Noizean behin garbiketa sakona egin beharko da, “lehorreko erauzketarako” erabiltzen diren eskuila mota berdinekin. Oso zikin dauden moketen kasuan, fabrikatzaileak bermatutako beste sistema batzuk erabili ahal izango dituzte horretan adituak diren langileek.

5.2.- Bulegoetako eta lan eremuetako altzariak

Bulegoetako, eremu irekietako, atarietako, atseden-eremuetako... paperontziak hustu eta garbitu behar dira.

Libururik, paperik eta antzekorik ez duten mahaiak eta erakusmahaiak garbitzeko, jatorriko tonua eta distira mantentzen duten eta babes-elementuak dituzten produktuak erabiliko dira. Inola ere ez da erabiliko lixibarik edo produktu desinfektatzailerik.

Altzariak garbi eta erakargarri mantenduko dira. Horretarako, kontu handiz kendu behar da gainazal osoko hautsa, tratatutako zapiekin, eta eguneroko erabilerak sortutako urratuak ere kendu behar dira.

Ekipo berezien garbiketa HAZIko Administrazioko arduradunekin kontsultatu behar da aurrez: teklatuak eta ordenagailuen pantailak, seinaleztapen-armairuak, aire egokituko aparatuak eta konfigurazio tekniko antzekoa duten beste batzuk.

5.3.- Metalak

Dagokion maiztasunaren arabera, jatorrizko itxura mantentzen eta nabarmentzen duten produktuak eta aluminioen anodizatuen oxidazioak eta aldaketak saihesten dituzten produktuak erabiliko dira.

5.4.- Hondakinen tratamendua

HAZIko langileek eraikinetan sortutako hondakinak gaika bereizita jasoko dira, eraikinean ezarritako sailkapenaren arabera (papera, plastikozko/metalezko ontziak eta zaborra), eta esleipendunaren bitartekoen bidez garraiatuko dira HAZIk adierazitako hondakinak biltzeko lekuetara, ezarritako ordutegian eta baldintzetan. Esleipendunak hornitu beharko ditu horretarako behar diren poltsak.

Garbiketa-zerbitzuak berak sortutako hondakinak ere gaika bildu behar dira, eta gaikako bilketarako edukiontzietan bota behar dira. Garbiketa-produktuen ontzi hutsak kudeatzeko proposamena baloratuko da, hondakin arriskutsuen legea betetzeko eta ingurumena hobetzeko kudeaketarako.

5.5.- Materiala gordetzea

Berariaz horretara bideratutako gela berezietan gordeko da garbiketarako material guztia, eta gainerako eremuak bezala garbitu beharko da gela hori ere.

Askotariko zereginetan erabilitako material eta makina guztiak behar bezala garbitu behar dira erabilera bakoitzaren ondoren.

6.- LANEKO ARRISKUEN KOORDINAZIOA ETA PREBENTZIOA.

Enpresa esleipendunak alta eman behar du enpresa-jarduerak koordinatzeko plataformetan, eta bertan eskatutako dokumentuak aurkeztu behar ditu, laneko arriskuen prebentzioa betetzen duela bermatzeko. HAZIk erabiltzen duen tresna Koordinatu da.

Esleipendunak jantzi egokiak emango dizkie langileei lanak egiteko, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Erregelamenduan jasotako araudia betez.

Kontratistaren betebeharra izango da dagozkion laneko arriskuen babeserako eta prebentziorako neurriak hartzea.

Zehazki, garbiketa-kontratuko langileek beharrezko segurtasun-neurriak izango dituzte eraikinaren eta Zentroko gelen kanpoko eta barruko kristalak garbitzeko.

6.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA INTELEKTUALA

Zerbitzua ematen den bitartean eskura izan dezaketen informazioarekin eta dokumentazioarekin zerikusia duen edozein alderdi konfidentziala da, eta ezingo da erabili, zabaldu edo hirugarrenei jakinarazi, ez zuzenean, ez zeharka. Konfidentzialtasun-konpromisoari eutsiko zaio kontratu-harremana amaitu ondoren ere.

ANEXO 1
HAZI-ELIKAren INSTALAZIOAK

HAZIren ABADIÑOKO INSTALAZIOAK

Muntsaratz dorrea
Muntsaratz auzoa, 17
Abadiño
48220
Bizkaia



II. ERANSKINA
Gutxieneko maiztasunak

Eremuak	Gutxieneko zereginak	Gutxieneko maiztasuna
Komunak	Ohiko garbiketa: ○ Elementu sanitarioak garbitzea eta desinfektatzea. ○ Zorua erratzez eta urez garbitzea. ○ Xaboia eta papera birjartzea. ○ Ispiluak garbitzea. ○ Hormak garbitzea. ○ Barruko eta kanpoko ateak garbitzea, kristalak barne.	Egunero
	Zorua eta gainazalak sakon garbitzea	Hiru hilean behin
Abadiñoko bulegoak	Ohiko garbiketa: ○ Zoladurak erratzez eta urez garbitzea. ○ Moketatutako eremuetan xurgagailua pasatzea. ○ Altzariei eta ekipo informatikoei hautsa kentzea eta garbitzea. ○ Gainazalak garbitu eta hautsa kentzea. ○ Paperontziak hustea eta garbitzea. ○ Barandak garbitzea. ○ Erradiadoreak eta/edo berogailu-ekipoak garbitzea. ○ Barruko ate eta leihoetako orbanak kentzea.	Astean 2 aldiz
	Irisgarri ez dauden altzarietako, barruko erlaitzetako, koadroetako eta lanparetako hautsa kentzea.	Hamabost egunetik behin
	Euliak kentzea, urte-sasoiaren arabera.	Egunero, beharraren arabera
	Ehun-elementuak garbitzea.	Hiru hilean behin
	Zorua sakon garbitzea.	Sei hilean behin
	Teklatuen garbiketa	Hilean behin
	Armiarma-sareak kentzea.	Hamabost egunetik behin
	Sakon garbitzea.	Sei hilean behin
Bilera-gelak	Ohiko garbiketa: ○ Zoladurak erratzez eta urez garbitzea. ○ Moketatutako eremuetan xurgagailua pasatzea. ○ Altzariei eta ekipo informatikoei hautsa kentzea eta garbitzea. ○ Gainazalak garbitu eta hautsa kentzea. ○ Laborategiko tresnarik ez duten apalategiak garbitzea. ○ Paperontziak hustea eta garbitzea. ○ Erradiadoreak eta/edo berogailu-ekipoak garbitzea. ○ Barruko eta kanpoko ateei orbanak kentzea, kristalei barne.(ekipamendu espezifiko gabe eskuragarri daudenak) ○ Katiluak, edalontziak eta platerak jasotzea eta garbitzea, hala dagokionean.	Egunero, beharraren arabera
	Irisgarri ez dauden altzarietako, barruko erlaitzetako, koadroetako eta lanparetako hautsa kentzea.	Hamabost egunetik behin
	Ehunak sakon garbitzea.	Hiru hilean behin
	Zorua sakon garbitzea.	Sei hilean behin
	Teklatuen garbiketa	Hilean behin
Abadiñoko atsedenguneak eta jangela	Garbiketa orokorra: ○ Altzariak garbitzea. ○ Mikrouhin-labeak eta vending makinak kanpotik garbitzea.	Egunero

	○ Mahaiak, aulkiak eta hozkailuaren kanpoaldea garbitzea. ○ Hozkailua garbitzea. ○ Paperontziak hustea. ○ Zoruak urez garbitzea. ○ Barruko eta kanpoko ateei orbanak kentzea, kristalei barne. .(ekipamendu espezifiko gabe eskuragarri daudenak)	
	Armiarma-sareak kentzea.	Hamabost egunetik behin
	Zorua sakon garbitzea.	Sei hilean behin
Eskailerak	Zoruan erratza pasatzea. Zoruak urez garbitzea. Armiarma-sareak kentzea. Barandak garbitzea.	Astean 2 aldiz
Harrera eta pasaguneak	Garbiketa orokorra: ○ Zoruan erratza pasatzea. ○ Zoruan mopa pasatzea. ○ Barruko eta kanpoko ateei orbanak kentzea, kristalei barne. .(ekipamendu espezifiko gabe eskuragarri daudenak)	Egunero
	Zoruak urez garbitzea. Altzariei hautsa kentzea.	Astean 2 aldiz
	Irisgarri ez dauden altzariak, barruko erlaitzak, koadroak eta lanparak sakon garbitzea.	Hamabost egunetik behin
	Zorua sakon garbitzea.	Sei hilean behin